



## 2022KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN

AUZO: ITURRIOTZ

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2021-10-06	19:00	21:15

### BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak: **Haizea Saez de Egilaz, Agustin Lekuona eta Eneritz Arbelaitz**

<b>Herritarrak: 13</b>	Euskaraz: 13	Elebitan: 0		
	Emakumezkoak: 7		Gizonezkoak: 6	
	<30 urte: 0	31-50 urte: 5	51-65 urte: 3	>66 urte: 5

### AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
<b>Aurkezpena</b>	Auzo batzarra eta zinegotziak aurkeztu dira.
<b>2021 urtea</b>	Urteko balorazioa egin da. 2020ak markatutako urtea izan da (ezjakintasunak, ezegonkortasuna...) Lehentasuna oinarritzko mantenuak/hitzarmenak/inbertsioak mantentzea izan da.
<b>2022ko aurreikuspena</b>	Aurrekontuen lehen zirriborroa aurkeztu da. Ez da inongo zalantzarik egon.
<b>Auzoa:</b>	<p>Aparkatzeko arazoak direla eta zenbait kontu. Auzoan ez daude lur nahiko aparkalekua egiteko modukoak, ez dute izendapen egokia. Hori dela eta, momentuz, torretxeko aparkalekua soilik egin daiteke. Martxan dago. Ea kotxeentzat bakarrik izango den galdetu da eta erantzun da galiboa jarriko dela. Auzoan autokarabana asko daudela eta plaza bat baino gehiago hartzen dutela, arazoa dagoela.</p> <p>Anerreko zubia: traktoreak pasako diren galdetu da. Baiezkoa esan da. Diapositiban dagoen planoak erakutsi da eta lehengo modukoa dela ikusten da. Laster hasiko da martxan.</p> <p><u>Tronpeori</u> dagokion azalpena. Mugikortasun plana dela eta, ez da tronpeoren inguruko ekintza bat egin, baizik eta inguru guztiarena. Mugikortasunari dagokionez lehentasunak zehaztuta daude eta oinezkoen lehentasuna eman behar zaie. Hortik dator aldaketa. Oinezkoak babesteko zatitxoa egin gabe dago, laister egingo da.</p>



## 2022KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN

Aldaketa nondik datorren galdetu da. Herri mailako azterketarik egin da? Elorrondo, Sibeltus... horren jarraipena da tronpeoko malda beheranzko noranzkoan izatea. Herri irteera nondik egin pentsatuta egin da noranzkoa, Amazkarko maldatik trafiko guztia ez bideratzeko egin da beheranzko noranzkoan.

Gorako noranzkoa jartzearen inguruan kexu dira. Plazara etortzeko ibilbide luzeagoa egin behar dela etab. Ondoko zelaira zabaltzeko eskatu dute eta bi noranzko jartzea. Zelaia erosi eta zabaldu. Momentuz ez da aurreikusten bidea zabaltzea epe motzera. Eskatu da aurrera begira hori aztertzeke.

Aipatu da zubia ere da arazoa dela. Estuegia da bi noranzko eta oinezkoak izateko. Oinezkoentzako beste zubi bat egin daiteke?

Oinezkoen zatia nolakoa izango den galdetu da. Nondik nora eta zenbateko zabalera duen. Elikako zubian oinezkoak eta autobusa kabituko ez direla aipatu da. Begiratu beharko da.

Mugikortasun planaren garrantzia azpimarratu da. Lehentasuna oinezkoek dute, kotxea hartzea zailagoa izan dadin lortu nahi da eta horretara datoz aldaketak.

Komunikazio akatsa egon dela aipatu da. Aurrez adierazi gabeko zerbait izan da, eta sorpresaz harrapatu ditu zenbait auzotar. Horretaz kexu dira.

Lehen zegoen bezala, ordutegiarekin, ongi zegoela aipatu du batek. Ordutegi muga jarri eta noranzkoa ordu horietan bakarra izan dadila eskatu da. Baina ikastetxeetako ordutegiez gain, jendea beste ordu batzuetan ere oinez ibiltzen da eta "eskapadak" ordu guztietan egon dira.

Tronpeon bizikletak nondik joango diren galdetu da. Ezin dute oinezkoen bidean sartu eta beraz, ezingo lukete gora joan. Hasieran ongi adierazi beharko da nor pasa daitekeen bide horretatik. Eta bestalde, okindegitik kiroldegira bizikletaz nondik joan behar da? Hori argitu edo zuzendu beharko da.

Luzarora azterketa bat egitea eskatu da, auzotik plazara nola joan jakiteko.

Auzotik bidegorrira nola joan galdetu da. Makutso ondoren "prohibida" bat dago, baimenduak izan ezik jartzen duena. Gaetxeko bidegurutzeraino bizikletaz joan daiteke, beraz, kartelean hori jarriko dela adostu da.

Autobus geltokiko zebrabidean zer egin kotxeak geratzeko? Bide hori diputazioarena da eta hari esan behar zaio. Udala hainbat eremu aztertzen ari da, leku asko baititugu horrela (Ergoien, Iparralde etorbidea...) eta "radar pedagógico"ak jartzea pentsatzen ari



## 2022KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN

da. Semaforoa, badenak... zebrabide aurrean jarri beharko lirateke, baina aldundiaren esku dago. Azterketa egiten ari da momentuz.

Komertzioak auzora jaisteko eskatu dute, horrela ez baitute plazara igo behar.

Herri guztian zehar badenak jartzen ari dira, zergatik? Gutxi batzuegatik herritar guztien kotxeak hondatzen ari dira. Isuna jartzeko eskatu dute. Baden ereduaren inguruan galdetu da, jarri diren azkenek kroska altuegia dute.

Altzibartik Iturriotza errotondan sartu aurretik ez da inor gelditzen, rekta horretan zerbait egin behar da. Hau ere aldundiaren errepidea da.

Udaltzainek isun gehiago jarri behar dituzte. Gaizki aparkatzen dutenei, espaloi gainean...

Arazoa heziketa da.

Garbiketa. Zerbait egin behar da, oso zikina dago. Irtenbidea zer da garbiketako langile gehiago jartzea? Ezin dugu horrela jarraitu. Pandemiarekin okerrera joan da egoera, heziketa indartu behar dugu.

Garañoko iturrian edukiontzia jar daiteke? Iturria zikina ez uzteko baserritar batek bere borondatez jarri zuen edukiontzia baina bila pasatzeko eskatzen dute. Eremu honetara kale garbiketa zerbitzua ziurrenik ez da iristen, landa eremua izanik, beraz, kentzea izango da egokiena.

Jartzen diren kartelen mezua begiratzeko eskatu da. *Ez, ez, ez* jarri beharrean, *hau egiten baduzu...* modu positiboan jarri mezuak.

Organikoen kuboak/plastikozko boltsak... katuek zulatzen dituzte. Badago beste mota bateko kuborik?

Kale garbiketa: "katxer" a toki batzuetan pasa da, beste toki batzuetan pasatzeko eskatu da. Guneren bat gaizki ikusten duten momentuan deitzeko esan da.

Ozentzio kalea eta Argiñene kalearen artean Almazene inguruan bi aldetara ezin dela pasa jartzen da. Ez da argi ulertzen. Beste seinale batzuk ere ez omen daude argi eta pintaketekin eta obrarekin amaitzea falta dela erantzun da. Hilabete honetan bukatu behar dituzte bertako lanak.

Aparkaleku berrian 25 plaza daudela adierazi da.

Marratik kanpo asko aparkatzen dela aipatu da. Marra gehiago egiteko eremuak daudela aipatu dute, adibidez lehen aipatu den Amazeneko ondo horretan. Erantzun da leketan ere espaloiarentzat lekua utzi behar dela. Aztertuko dugu ea atera daitezkeen plaza gehiago. Zapata kajan lehen diagonalean aparkatzen ziren eta orain linean. Baina hondakinen kamioiak ere pasa behar du, oinezkoek lekua utzi behar zaie.



## 2022KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN

Iturriozko biribilgunean Altzibartik Makutso aldera gune bat dago espaloian non hormigoizko zintarri bat erorita dagoen eta arriskutsu oinezkoentzat.

Pottolo aurrean zebra bidea dago baino espaloian "rebajerik" ez dago. Beraz, aulkian ibiltzen direnek ibilgailuen "rebajetik" ibiltzen dira. Begiratu beharra.

Frontoiko itoizura aipatu da. Begira ari da Udala.

Frontoiko "rejilla" ezin da altxa eta zaborrez beteta dago. Begiratuko da garbitzeko.

Frontoi aurrean parrilla bat dago, baina porlana errepiderantza dago eta aparkatzerakoan jo egiten da. Horren ondoan dagoen egurrezko mahaia ere ustela dago. Begiratuko da.

Bankoak: ea margotu/lijatuko diren galdetu da. Gehiago jarriko diren ere galdetu da.

Horma ondoko eremuan errekatxo bat dago eta oso zikina dago. Urbanizazioa egiten denean hori txukunduko da. Momentuz Udalak ez du garbitzen eremua, pribatua baita.

Elkarte ondoko eremuan egingo diren etxebizitzaren altueraren inguruan galdetu da.

Auzoan zabaldu da lehengo egitasmoa aldatu eta altuagoak egingo dituztela. Begiratuko da eta erantzungo da.

Orokorrean auzoan etxeak egitearen inguruan hitz egin da eta etxe bakoitzean dagoen kotxe kopuruaren inguruan eztabaida egon da.

Udakonerako bidean zokan bat dago arriskutsua. Herri bideetan dauden asmoak azaldu dira.

Beheko sorotik behera doan espaloira jaisteko eremu hori gaizki dago. Lurra erori egiten da euriarekin. Etxe berriaren obra amaitu da baina berdin geratu da.

### BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,08
Bilera ongi gidatu da	7,92
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,25
Auzotar kopurua	3,36
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7,33



## 2022KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN

Saioa probetxugarria izan al da?	7,5
Egunaren egokitasuna	7,92
Orduaren egokitasuna	7,58
Lekuaren egokitasuna	<b>7,45</b>